


Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskal Filologian lizentziaduna eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkari denak,

EGIAZTATZEN DU:

Onomastika batzordeak Asparreneko *Ilarduia* kontzejuaren izenaren deklinabidea aztertu eta amaierako *-a* artikulua dela ebatzi zuela.

Izenaren egitura argia da: *ilar* landare izena, *-dui* ugaritasun atzizki zaharra, gaur egun *-di* dena, eta *-a* artikulua. Tamalez, ez daukagu izenaren erabilaren berri ematen digun lekukorik eta toponimia ez da argia, kasu honetan kontrako adibideak ditugu eta. Araian *Ilardui* toponimoa dugu, funtsean esanahi bera duena, baina Albeiz herrian XVII. mendean *Ilarduyarabidea* ageri omen da. Adibide hori kontuan izanik, batzordeak, euskaraz ohiko den bidea jarraituz, azkeneko *-a* artikulutzat jotzea erabaki zuen, eta ondorioz deklinabidea honako hau da: *Ilarduia, Ilarduain, Ilarduiko, Ilarduitik, Ilarduiria,...*

Eta hala adierazteko eta bertako kontzejuari bidaltzeko, izenpetzen du, Bilbon bi mila eta hiruko irailaren Sean.



Andres Iñigo Ariztegi,  
Presidente de la Comisión  
de Onomástica



Mikel Gorrotxategi,  
Secretario de la Comisión  
de Onomástica